

MEMORIA

ZINE

GO

AK

2023


MEMORIA

ZINE GO AK

ZINEGOAK 20 EDIZIO BILBON ETA PROIEKTUAK 20 EDICIONES EN BILBAO Y...	3
SARRERA ETA HELBURU OROKORRA INTRODUCCIÓN Y OBJETIVO GENERAL	4
OHOREZKO SARIA PREMIO HONORÍFICO ÁNGELES CRUZ	5
3,2,1...ZINEGOAK!	6
EGITARAUA PROGRAMACIÓN FIK DOK KRAK	7
EGITARAUA PROGRAMACIÓN BEGIRADAK	8
EKINTZA BEREZIAK ACTIVIDADES ESPECIALES	9
EZTABAIDA ETA HAUSNARKETA ENCUENTROS DEBATE Y REFLEXIÓN BILGUNE	10
ARTE ESZENIKOAK ARTES ESCÉNICAS	11
EKITALDIAK GALAS	12
ZGPRO	13
ZINEGOGOAK	14
ZG HEDAPENA	15
ZINEGOAK ZENBAKITAN EN NÚMEROS ÉXITO Y ALCANCE	16
OIHARTZUNA HEDABIDEETAN IMPACTO EN LOS MEDIOS	19

ZINEGOAK 20 EDIZIO BILBON ETA PROIEKTUAK 20 EDICIONES EN BILBAO Y...

ARABA Amurrio • Laudio • Urkabustaiz **BIZKAIA** Abadiño • Amorebieta-Etxano • Bakio •
Balmaseda • Barakaldo • Basauri • Berriz • Durango • Galdakao • Getxo • Igorre • Leioa • Lekeitio
• Portugalete • Mallabia • Mungia • Orozko • Sestao • Sopela • Urduña • Zeberio **GIPUZKOA**
Aduna • Amasa - Villabona • Anoeta • Arrasate • Astigarraga • Azkoitia • Azpeitia • Beasain • Bergara •
Deba • Donostia • Errenteria • Hernani • Lazkao • Legorreta • Oiartzun • Oñati • Ordizia • Orio • Tolosa
• Zumaia **NAFARROA** Baztan • Bera • Leitza • Lizarra • Tafalla • Zizur Nagusia



EGOITZA OFIZIALAK SEDES OFICIALES

Bigarren urtez Lekeitio Zinegoakeko egoitza ofiziala izan da, Euskal Zine Bileraren laguntzaz, eta, horrela, modu koordinatuan jarduerak antolatu dira Bilborekin batera.

Lekeitio con el soporte de Euskal Zine Bilerak, ha vuelto a convertirse en sede oficial del festival organizando actividades de manera coordinada con la sede principal en la ciudad de Bilbao.

LAN ILDOAK DITU: QUE TRABAJA POR...

- 1 **Tratu-berdintasuna, sexu-, identitate- eta/edo genero-askatasunarekiko errespetua eta bizikidetzaren sustapena kulturaren bidez: zinema, antzerkia, literatura, musika eta LGTBIQ+ proiektuen sorkuntza.**
Fomentar la igualdad de trato, el respeto a la libertad sexual, de identidad y/o de género, y la convivencia a través de la cultura: el cine, el teatro, la literatura, la música y la creación de proyectos LGTBIQ+.
- 2 **Elkartu, laguntza eskaini, hausnartu eta eztabaidatzeko**
Ser plataforma y espacio de encuentro, apoyo, reflexión y debate
- 3 **Biztanleriaren sektore guztiak sensibilizatzea eta inplikatzeko, arreta pertsona gazteenengan eta biztanleria seniorrengan jarritz.**
Sensibilizar e implicar a todos los sectores de población poniendo el foco en las personas más jóvenes y en la población senior.
- 4 **Sortutako lurraldean sare bat zabaltzea (50 udalerrri baino gehiago Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, estatuko eta nazioarteko konexioak, LGTBIQ+ Europa Hegoaldeko Jaialdien Sarearen parte izanik).**
Extenderse por el territorio creado un red (+ 50 poblaciones entre Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, conexiones estatales e internacionales, formando parte de la Red de Festivales LGTBIQ+ Europa Sur).

SARRERA ETA HELBURU, OROKORRA INTRODUCCIÓN Y OBJETIVO GENERAL

Zinegoak hazten ari da, eta erronka berriei eta errealitate berriei egokitzeko saiakeran dihardu. Izan ere, kultura-jarduera garrantzitsua izateaz gain, gizartea eraldatzeko tresna sendoa da. Gaur egun, 20 edizioaren ondoren, Zinegoak erreferente bihurtu da etxeko mailan eta nazioartean, eta programazioan filmak, obra eszenikoak, dantza, errezitaldiak, liburuen aurkezpenak, mahai-inguruak, industria-gune bat eta sexu-aniztasunaren inguruko proiektu hedatuak ditu.

Zinegoak 2023 oso edizio berezia izan da, 20 urteko ibilbidea bete baitu jaialdiak aurten. Beste behin ere, Zinegoak gizartean dauden gogoeta nagusietako batzuk entzun ditu, eta aretoetara eraman ditu hainbat proposamen kulturalen bidez, nor garen eta nola bizi nahi dugun erabakitze askatasuna eta zilegitasuna aldarrikatuz. Hori guztia sexu-aniztasunari eta sexu-orientazioari, genero-identitatearen eraikuntzari edo sexualitateari lotutako beste edozein elementuri irekitako ikuspegitik, arreta identitate aldakorretan jarri eta generoa aldatzeko eta deskubritzeko lekua dela ulertuz.

Zinegoak 20. edizioa ekainaren 26an hasi zen ofizialki, Arriaga Antzokian egin zen irekiera ekitaldiarekin, eta uztailearen 3an amaitu zen, astelehenean, sari banaketarekin eta jaialdiaren amaierarekin. Hasiera ofiziala eman aurreko asteburuan 3,2,1... Zinegoak! ospatu genuen. Ondoren, uztailearen 3tik 5era arte, modu birtualean gozatu ahal izan zen sail ofizialaren zati batez eta sail paralelo batzuek Zinegoakeko kanalean, Filmin plataformaren barruan. Gainera, uztailearen 4tik 30era, CANAL 20 ANIVERSARIO ZINEGOAK egon da eskuragarri. Cervantes Institutuarekin elkarlanean sortu zena, 20. urteurrena ospatzeko. Bere helburua LGTBQ+ gaiak jorratzen dituzten filmak Institutuaren sareko herrialde guztietara helaraztea izan da.

Zinegoak crece y se adapta a los nuevos retos y nuevas realidades siendo no solo una importante actividad cultural, sino una rotunda herramienta de transformación social. Hoy, tras 20 ediciones, Zinegoak se ha convertido en un referente a nivel nacional e internacional que cuenta en su programación con películas, obras escénicas, danza, recitales, presentaciones de libros, mesas redondas, un espacio de industria propiamente dicho y proyectos expandidos en torno a la diversidad sexual.

Zinegoak 2023 ha sido una edición muy especial en la que se han cumplido 20 años de trayectoria. Una vez más Zinegoak ha escuchado algunas de las reflexiones principales presentes actualmente en la sociedad y las ha trasladado a las salas a través de diferentes propuestas culturales, reivindicando la libertad y la legitimidad de decidir quiénes somos y cómo queremos vivir. Todo ello desde una mirada abierta a la diversidad sexual, a las distintas orientaciones, a la construcción de identidad de género o a cualquier otro elemento ligado a la sexualidad, poniendo el foco en las identidades fluidas y comprendiendo que el género es un lugar de cambio y de descubrimiento.

La 20 edición de Zinegoak arrancó oficialmente el día 26 de junio con la inauguración que tuvo lugar en el Teatro Arriaga y terminó el lunes 3 de julio con la entrega de premios y clausura del festival. El fin de semana previo al arranque oficial se celebró el 3,2,1... Zinegoak! Y a partir del día 3 de julio y hasta el 5, se pudo disfrutar de manera virtual de parte de la sección oficial y de algunas de las secciones paralelas en el canal de Zinegoak dentro de la plataforma Filmin. Además, entre los días 4 y 30 de julio, ha estado disponible el CANAL 20 ANIVERSARIO ZINEGOAK creado en colaboración con el Instituto Cervantes a propósito del 20 aniversario y cuyo objetivo ha sido hacer llegar películas de temática LGTBQ+ a todos los países de la red del Instituto.



OHOREZKO SARIA PREMIO HONORÍFICO ÁNGELES CRUZ

BABESLEA PATROCINADO POR SPONSORED BY
DAMA

Zinegoak 2023 ohorezko saria ikus-entzunezko lanen eta lan zinematografikoen egile-eskubideak kudeatzen eta banatzen dituen erakundea den DAMAK babestu du lehen aldiz, eta Ángeles Cruz zinemagile, aktore, gidoilari eta zinema zuzendari oaxakarrak jaso du.

Ángeles Cruz Arte Sortzaileen Sistema Nazionaleko kidea da, eta hainbat sari jaso ditu, horien artean Ariel Saria, Mexikoko Arte eta Zientzia Zinematografikoen Akademiak emana.

Bere inguruarekin konprometitutako sortzailea izanik, kostunbrismoa saihesten ahalegintzen da landa-eremuko eta komunitate indigenetako errealitateak irudikatzen dituenean. Ausardia handiz atera ditu argitara komunitate indigenetako istorio ezkutatuak. Bere lanen bidez, istorio horiei heltzeko eta eraldatzen

hasteko elkarrizketa- eta borrokaesparruak sortzen ditu. Elkarrizketa berriei bide emateko premiak bultzaturik, honelako gaiak lantzen ditu, besteak beste: emakumeen aurkako indarkeria, haurren abusua, matxismoa, marjinalitatea, pobrezia eta sexu-aniztasuna.

Oaxacako eta Mexikoko zinemaren erreferentzia eta aurpegi ezagunenetakoa bat da gaur egun Ángeles Cruz. Haren ahotsak badu zilegitasuna normalean ikusten ez ditugun gaiez jarduteko, eta balio zinematografiko ukazina dauka, betiere diskurtso konprometituenen

zerbitzura. Hori dela eta, gure sari gorena eman nahi diogu, beraren lan artistikoa eskertzeko eta konpromiso soziala aitortzeko.

El premio honorífico Zinegoak 2023 ha estado patrocinado por primera vez por DAMA, entidad de gestión y reparto de los derechos de autor de obras audiovisuales y cinematográficas, y ha sido para la cineasta, actriz, guionista y directora de cine oaxaqueña Ángeles Cruz.

Ángeles Cruz es Miembro del Sistema Nacional de Creadores del Arte y ha sido reconocida con multitud de premios, entre ellos el Premio Ariel, concedido por la Academia Mexicana de Artes y Ciencias Cinematográficas. Es una creadora comprometida con su entorno, que evita el costumbrismo en la representación de las realidades rurales e indígenas y que ha decidido con valentía sacar a la luz muchas de las historias ocultas que se desarrollan en las comunidades. Con sus obras logra crear espacios de diálogo y confrontación en los que poder abordarlas y empezar a transformarlas. Violencia contra las mujeres, abuso infantil, machismo, marginalidad, pobreza o diversidad sexual son los temas que Cruz aborda con una necesidad imperiosa de generar nuevos diálogos.

Ángeles Cruz se ha convertido en una referencia y es uno de los rostros más visibles del cine oaxaqueño y mexicano. Una voz legitimada para exponer temas que no tenemos costumbre de ver y que posee innegables valores cinematográficos al servicio de un discurso comprometido. Por todo ello, hemos querido agradecer su trabajo artístico y reconocer su compromiso social con nuestro máximo galardón.



3,2,1...ZINEGOAK!

3,2,1...
Zinegoak!

3, 2, 1... Zinegoak! ekitaldiarekin eman genion hasiera 2023ko edizioari jaialdia ofizialki hasi aurreko asteburuan, ekainaren 23tik 25era, eta hainbat jarduera kultural izan ziren bertan:

- » Guggenheim Bilbao Museoa: Nina Menkes zinemagilearen *Brainwashed: sex, camera, power* dokumentalaren proiektzioa.
- » La Sinsorga Kulturgune Feminista: Eszter Katalin artistaren *Queer (Un)belongings* proiektu dokumentalaren aurkezpena. Ikerketa-proiektu bat, Euskal Herritar diren, migrazioa gertutik bizi duten eta beren burua LGTBQ+ gisa identifikatzen duten lau kultura-langilerekin izandako elkarrizketetan oinarritua.
- » Bilborock: Dantzerti, Euskadiko Goi Mailako Arte Dramatiko eta Dantza Eskolarekin elkarlanean egindako *Gure garaian* obraren estreinaldia. Matxalen de Pedrok zuzendutako eta Dantzertiko ikasleek antzetzutako lana LGTBQ+ adineko pertsonen testigantzetan oinarrituta sortu da.
- » Bira Kultur Gunea: BIZI proiektuaren aurkezpena, zenbait elkarrizketa eta fanzine bat oinarri hartuta dokumental baten sorkuntzan oinarritua, bisexualitateak euskal komunitatean dituen errealitateak ardatz hartuta. Aurkezpenaren ondoren, BIZI FESTA musika saioa egin zen, eta Miren Narvaiza, La Furia, Dj Cliz eta Dj Leo aritu ziren.
- » Bilborock: DAMAK babestutako Zinegoak 2023 ohorezko saridun Ángeles Cruzen masterclassa. Saioan Irantzu Varela kazetari feminista izan zuen lagun. Ondoren, bere hiru obra proiektatu ziren: "*Arcangel*", "*La Tiricia o Cómo curar la tristeza*" eta "*La carta*". Proiektzioaren ostean, zuzendariarekin eta publikoarekin solasaldia izan zen.

La edición de 2023 comenzó con 3,2,1... Zinegoak! que se celebró el fin de semana previo al arranque oficial del festival, del viernes 23 al domingo 25 de junio y donde se desarrollaron diferentes actividades culturales:

- » Museo Guggenheim Bilbao: proyección del documental *Brainwashed: sex, camera, power* de la cineasta Nina Menkes.
- » Espacio Kulturgune Feminista La Sinsorga: presentación del proyecto documental *Queer (Un)belongings* de la artista Eszter Katalin. Un proyecto de investigación a partir de entrevistas con cuatro trabajadores culturales que viven en el País Vasco, se identifican como LGTBQ+ y les atraviesan diferentes historias de migración.
- » Bilborock: estreno de la obra *Gure garaian* realizada en colaboración con Dantzerti, Escuela superior de arte dramático y danza de Euskadi. La obra dirigida por Matxalen de Pedro e interpretada por alumnado de Dantzerti, ha sido creada a partir de los testimonios de personas mayores LGTBQ+.
- » Bira Kultur Gunea: Presentación del proyecto BIZI basado en la creación de un documental a partir de una serie de entrevistas y un fanzine, que pone el foco sobre diferentes realidades de la bisexualidad dentro de la comunidad euskaldun. Tras la presentación tuvo lugar la sesión musical BIZI FESTA en la que actuaron Miren Narvaiza, La Furia, Dj Cliz y Dj Leo.
- » Bilborock: Masterclass de la premio honorífico Zinegoak 2023 Ángeles Cruz, patrocinada por DAMA. En la sesión estuvo acompañada de la periodista feminista Irantzu Varela. Posteriormente se proyectaron tres de sus obras: "*Arcangel*", "*La Tiricia o Cómo curar la tristeza*" y "*La carta*", y tras la proyección hubo un coloquio con la directora y el público.



EGITARAUA PROGRAMACIÓN FIK DOK KRAK

2023ko Zinegoak jaialdiak identitate aldakorrek ezarri dituzten erdigunean, generoa aldaketarako eta deskubrimendurako esparru bat dela ulertuta. Horrela islatu da Sail Ofizialeko filmetan. Bertan, trans, lesbi, queer, ez bitar eta gay bizipenak agertu dira, inposatutako estereotipoak zalantzan jarri, araua deseraiki eta gizartearen barruan errespetua bilatzeko prozesuen errealitate desberdinak ikusarazten dituztenak.

Zinegoak FIK, DOK eta KRAK film luzeen programazio ofizialeko hiru kategoriei eutsi die, eta 16 film lehiatu dira, besteak beste, Brasil, Kanada, Libano, Suitza, Portugal eta Argentinakoak. Horien artean, esnatze sexualaz, elkar ikustez eta ezagutzeaz hitz egiten duten lanak (*Lobo e cão*, *Something You Said Last Night*), posizio politiko batetik gure gorputzekin izandako gozamenak (*Fierce: A Porn Revolution*), sorterrira itzultzea (*Liuben*), memoriaren artxiboa (*Casa Susanna*, *Anhell69*), zapalkuntza-egitura hegemonikoak ezabatzeko borroka (*Sirens*, *Who I Am Not*) eta beste mundu batzuk erakusteko eta pentsatzeko ilusioa (*Alteritats*, *De noche los gatos son pardos*). Era berean, aurten modu berezian nabarmendu nahi izan ditugu LGTBQ+ pertsonen bizipenak komunitate indigenetan lehen pertsona kontatuak, esaterako *Wildhood*, Uyra: a retomada de floresta eta Ángeles Cruzen filmografia osoaren bidez.

Zinegoak 2023 ha puesto el foco en las identidades fluidas, comprendiendo que el género es un lugar de cambio y de descubrimiento. Así se ha plasmado en las películas de la Sección Oficial donde se han mostrado vivencias trans, lésbicas, bisexuales, queer, no binarias y gays, que visibilizan diferentes realidades de procesos de cuestionamiento de los estereotipos impuestos, de deconstrucción de la norma y de la búsqueda del respeto dentro de la sociedad.

Zinegoak ha mantenido sus tres categorías de la programación oficial de largometraje FIK, DOK y KRAK donde han competido 16 películas provenientes de diferentes países como Brasil, Canadá, Líbano, Suiza, Portugal o Argentina, entre otros. Entre ellas, obras que hablan del despertar sexual, verse y reconocerse (*Lobo e cão*, *Something You Said Last Night*), el goce con nuestros cuerpos diversos desde una posición política (*Fierce: A Porn Revolution*), el regreso al lugar de origen (*Liuben*), el archivo de las memorias (*Casa Susanna*, *Anhell69*), la lucha por eliminar las estructuras hegemónicas de opresión (*Sirens*, *Who I Am Not*) y la ilusión por mostrar y pensar otros mundos (*Alteritats*, *De noche los gatos son pardos*). También hemos querido destacar este año de forma especial las vivencias de las personas LGTBQ+ en las comunidades indígenas contadas en primera persona a través de obras como *Wildhood*, *Uyra: a retomada de floresta* y también de toda la filmografía de Ángeles Cruz.



EGITARAUA PROGRAMACIÓN BEGIRADAK FILM LABURRAK CORTOMETRAJES

Lehiatzen diren film laburren sail ofizialak 4 ziklo izan ditu, horien artean *Haurtzaroari eta Nerabezaroari* buruzko ohiko zikloak eta *Emakume Zuzendariak* zikloa, non LGTBIQ+ errealitateak jorratzen dituzten emakumeek zuzendutako lanak erakusten diren. Eta beste bi ziklo berri sortu dira horretarako: *TBIQ+* zikloa, LGTBIQ+ kolektiboaren barruan gutxien ikusi diren errealitateen istorioen erakusketara eskaintzen duena. Eta *Lotura Primarioak* zikloa, gure lehen mailako loturei buruzko istorioak erakutsi dira, gure gurasoekin eta tutoreekin ditugunak, eta gure garapen emozionalean funtsezko espazioa direnak.

Lehiaketaz kanpo, *Erroak*, *Euskal Panorama* zikloa apustu sendoa da, aniztasuna jorratzen duten eta Euskadin egin diren hainbat film labur biltzen dituena. Hori jaialdiaren ziklo finkoetako bat da, tokiko ekoizpenarekiko konpromisoa erakusten baitu. Helburua da sexu- eta genero-aniztasunaren inguruko filmen sorkuntza, ekoizpena eta banaketa sustatzea eta bultzatzea, eta LGTBIQ+ edukia duten euskal ekoizpenei erakusleio bat irekitzea.

La sección oficial de cortometrajes a competición ha contado con 4 ciclos, entre ellos los ya habituales sobre *Infancia y Adolescencia*, y el ciclo *Mujeres Directoras*, donde se muestran obras dirigidas por mujeres que tratan realidades LGTBIQ+. Y se han creado para la ocasión otros dos ciclos nuevos: el ciclo *TBIQ+*, que ha ofrecido una muestra de historias de las realidades menos visibilizadas dentro del colectivo LGTBIQ+. Y el ciclo *Vínculos Amorosos*, donde se han mostrado historias sobre nuestros vínculos primarios, aquellos que mantenemos con nuestros padres, madres y tutorxs, y que constituyen un espacio fundamental en nuestro desarrollo emocional.

Fuera de competición se mantiene como una apuesta firme el ciclo *Erroak, Panorama vasco*, que recoge diferentes cortometrajes que tratan la diversidad y han sido realizados en Euskadi. Este es uno de los ciclos fijos del festival ya que supone un compromiso con la producción local. Su objetivo es apoyar y estimular la creación, producción y distribución de películas en torno a la diversidad sexual y de género, y abrir una ventana de exhibición de producciones vascas con contenido LGTBIQ+.



EKINTZA BEREZIAK ACTIVIDADES ESPECIALES

EMANALDI BEREZIAK

Hainbat proiektio berezi izan ditugu:

- » Ángeles Cruzen atzera begirakoa, Zinegoak 2023 ohorezko saria, DAMAk babestua, Bilbao Arten eta Bilborocken.
- » *20.000 especies de abejas* film sarituaren proiektioa, Estibaliz Urresolak zuzendua, FAS zineklubarekin elkarlanean antolatutako saio batean.
- » Izaskun Arandia zuzendariak eta Peter Stephens ekoizleak *My Way Out* filma aurkeztu dute. Filma Donostiako Zinemaldian estreinatu zen eta Zinegoakeko aurreko edizioako ZG PROko kide izan zen.

Emanaldi berezien ondoren, ikusleek pelikuletako taldeekin sakondu ahal izan dute obran gertatzen diren xehetasunei, sormen prozesuari, interpretatzen dutenei eta bizipen pertsonalei buruz.

KONTZERTUAK

- » Chocolate Remixen Kontzertua Bilborocken
- » Kontzertua & DJ: Paula Trama + Susi Pireli & Barbi Recanati + Lux Rapto Kabareten.

PROYECCIONES ESPECIALES

Hemos contado con diferentes proyecciones especiales:

- » Retrospectiva de Ángeles Cruz, premio honorífico Zinegoak 2023 patrocinado por DAMA, que ha tenido lugar en Bilbao Arte y Bilborock.
- » Proyección de la multipremiada película *20.000 especies de abejas*, dirigida por Estibaliz Urresola, en una sesión organizada en colaboración con el Cineclub FAS.
- » La directora Izaskun Arandia junto al productor Peter Stephens han presentado la película *My Way Out* estrenada en el Festival de San Sebastián y que formó parte del ZG PRO de la edición anterior de Zinegoak.

Tras las proyecciones especiales el público ha podido profundizar con los equipos de las películas acerca de los cruces que se producen en la obra, el proceso creativo, quienes la interpretan y sus vivencias personales.

CONCIERTOS

- » Concierto Chocolate Remix en Bilborock»
- » Concierto & DJ: Paula Trama + Susi Pireli y Barbi recanati + Lux Rapto en Kabaret.



EZTABAIDA ETA HAUSNARKETA ENCUENTROS DEBATE Y REFLEXIÓN BILGUNE

Arlo hau Zinegoaken barruan elkartzeko, eztabaidatzeko eta hausnartzeko gune gisa finkatu da, eta bertan honako hauek aurkeztu dira:

- » *"Begiradetatik haratago"* dokumentalaren proiektioa, Euskadiko LGBTQ+ kolektiboaren esperientzien aniztasuna islatzen duena, zortzi aktibisten bizipen eta ondorioen bitartez. Proiektioaren ondoren, solasaldi bat egin zen dokumentaleko lantaldearekin eta protagonistekin.
- » *LLÁMALO X* proiektu eszenikoaren aurkezpena. Ainhoa Artetxe aktore bilbotarrak zuzendu eta Pabellón 6en aurkeztu zuen. Antzezlanak hainbat lagun LGBTQ+en harremana jorratzen du. Talde barruan orgia bat eginez dauden tentsio eta itxaropen sexual-afektibo batzuk askatu nahi dira. Helburua prozesua publikoarekin partekatzea eta ondoren solasaldi bat sortzea izan da.
- » June Fernández eta Oli Artola Apeztegia kazetariak osatutako BIZI proiektu dokumentalaren eta fanzineren aurkezpena, bisexualitateari eta euskal komunitateari buruzkoa. Aurkezpenaren ondoren, BIZI FESTA musika saioa egin zen, Bisexual/Pansexual musika artistiko arloan erreferente diren artisten emandiekkin: La Furia, Miren Narbaiza, DJ Cliz eta DJ. Leo.
- » Euskadin bizi den Eszter Katalin artista bulgariarraren ikerketa batean oinarritutako *Queer (Un)Belongings* proiektuaren aurkezpena. Proiektuaren ardatza da desplazamendu-esperientziek nola eragiten duten (edo ez) sexu-generoen arteko disidentziatik bertatik bizitako esperientzietan, nola eragiten duen horrek beste zapalkuntza-modu batzuekin eta nola adierazten den haien praktika artistikoetan.

Esta área se consolida como un espacio de encuentro, debate y reflexión dentro de Zinegoak y en ella se han presentado:


- » Proyección del documental *"Begiradetatik Haratago"* (*Más allá de las miradas*) que refleja la diversidad de experiencias del colectivo LGBTQ+ de Euskadi, a través de las vivencias y conclusiones de ocho personas activistas. Tras la proyección se realizó un coloquio con parte del equipo del documental y algunos de los protagonistas.
- » La presentación del proyecto escénico *LLÁMALO X* dirigido por la actriz bilbaína Ainhoa Artetxe y que se presentó en Pabellón 6. La obra trata la relación de varias amigas LGBTQ+ que pretende desatar ciertas tensiones y expectativas sexo-afectivas que existen dentro del grupo llevando a cabo una orgía. El objetivo ha sido compartir con el público el proceso y generar un coloquio posterior.
- » Presentación del proyecto documental y del fanzine BIZI sobre bisexualidad y comunidad vasca realizado por las periodistas June Fernández y Oli Artola Apeztegia. Tras la presentación se realizó la sesión musical BIZI FESTA con las actuaciones de artistas referentes en el campo artístico musical Bisexual/Pansexual como son La Furia, Miren Narbaiza, DJ Cliz y DJ. Leo.
- » Presentación del proyecto *Queer (Un)Belongings* basado en una investigación de la artista búlgara residente en Euskadi, Eszter Katalin. El proyecto se centra en cómo las experiencias de desplazamiento influyen (o no) en las experiencias vividas desde la propia disidencia sexo-génerica, cómo esto interactúa con otras formas de opresión y cómo se expresa en sus prácticas artísticas.



ARTE ESZENIKOAK ARTES ESCÉNICAS

- » Ane Zabalak eta Galder Perezek osatutako Gilkitxaro konpainiaren azken antzezlaren aurkezpena, *Identitateak* izeneko eta Lutxo Egja idazleak ondutako testu batetik abiatuta sortua.
- » *Gure Garaian* antzezlaren estreinaldia, Dantzerti Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantzako Goi Mailako Eskolarekin elkarlanean ekoiztia. Matxalen De Pedrok zuzendutako obra hau LGTBIQ+ adineko pertsonen buruzko proiektu batean oinarrituta dago. Bertan, Dantzertiko ikasleek ikuskizun honen alderdi guztien sormenean eta pertsonaien interpretazioan lagundu dute, istorio horiek ikusarazteko asmoz.

- » Presentación de la última pieza teatral de la compañía Gilkitxaro formada por Ane Zabala y Galder Perez, titulada *Identitateak* y creada a partir de un texto elaborado por el escritor Lutxo Egja.
- » Estreno de la obra teatral *Gure Garaian* (*En nuestros tiempos*) producida en colaboración con Dantzerti, Escuela superior de arte dramático y danza de Euskadi, con quien se ha establecido esta primera colaboración. Esta obra dirigida por Matxalen De Pedro está basada en un proyecto sobre personas mayores LGTBIQ+ donde el alumnado de Dantzerti ha colaborado en la creatividad de todos los aspectos de este espectáculo y en la interpretación de los personajes, con la intención de visibilizar estas historias.



EKITALDIAK GALAS


HASIERA EKITALDIA GALA INAUGURAL

Ekainaren 26an, 19:30ean, Arriaga Antzokian Zinegoak 2023ren inaugurazio-gala egin zen, Nerea Arriola eta Aitziber Garmendia aktoreek aurkeztua. Horrez gain, Euskoprincess taldearen musika emanaldiaz gozatu ahal izan genuen, baita Kiki House of Anunnaki etxearen eskutik egindako vogue show batez ere, artearen bidez transmaribollaren existentzia aldarrikatzen duena.

Galan, Ángeles Cruz zinemagile mexikarrak DAMAK babestutako Zinegoak 2023 ohorezko saria jaso zuen. Galari amaiera emateko Juliana Curi zuzendariaren, *Uyra. A retomada da floresta* sail Ofizialeko film luze dokumentala proiektatu zen, Amazoniako oihanaren bihotzean filmatutako lan ekologista eta queer poetikoa.

El día 26 de junio a las 19:30 en el Teatro Arriaga tuvo lugar la gala de inauguración de Zinegoak 2023 que fue presentada por las actrices Nerea Arriola y Aitziber Garmendia. Además se pudo disfrutar de la actuación musical de Euskoprincess, y de un ballroom, un show de vogue de mano de la casa Kiki House of Anunnaki, que reivindica la existencia transmaribollera a través del arte.

Durante la gala, la cineasta mexicana Ángeles Cruz recibió el premio honorífico Zinegoak 2023 patrocinado por DAMA. La gala concluyó con la proyección del largometraje documental de la Sección Oficial *Uyra. A retomada da floresta* de la directora Juliana Curi. Una poética obra ecologista y queer rodada en el corazón de la selva amazónica.



AMAIERA EKITALDIA GALA DE CLAUSURA

Uztailaren 3an sari banaketa eta amaiera ekitaldia egin ziren Bilborocken. Bertan, Irantzu Varela kazetari feministaren laguntza izan zuen Unai Izquierdo aktoreak palmaresaren berri eman eta jaialdiko epaimahaikideei hitza emateko. Galari amaiera emateko, ZG Sari Nagusia irabazi zuen filma proiektatu zen, EITBk babestua eta 4.000 €ko sariaren irabazlea.

Hasiera eta itxiera ekitaldiak streaming bidez jarraitu ahal izan ziren EITBri esker.

El 3 de julio se realizó la entrega de premios y gala de clausura en Bilborock. En ella se dio paso a los distintos jurados del festival que dieron a conocer el palmarés en un acto presentado por el actor Unai Izquierdo que contó con la colaboración de la periodista feminista Irantzu Varela. La gala concluyó con la proyección de la película ganadora del Gran Premio ZG, patrocinado por EITB y dotado con 4.000€.

Tanto la gala de inauguración como la gala de clausura pudieron seguirse vía streaming gracias a EITB.



ZGPRO

ZG/PRO 2023k sexu-aniztasunarekin lotutako zinemaren garapenean lan egiten duten eragileak eta espazioak ikusarazteko apustuari eusten dio, eta beste urrats bat ematen du estatu-ekoizpeneko LGBTQ+ proiektu zinematografikoen nazioarteko leiho bihurtzeko.

Edizio honetan, Incoproductión, zinema- eta telebista-proiektuetarako merkatu digitala erabili da berriro, ZG/PRO Work in Progress (WIP) plataformaren sorrerarekin duen lankidetzaz handitzen duena. LesGaiCineMad-eko Queer Cine Lab - Madrilgo LGBTQ Nazioarteko Zinema Jaialdiak eta Bartzelonako FIRE!! Mostrako FIRE LABek ere parte hartu dute, estatuko LGBTQ+ proiektuak garatzeko aholkularitza espezifikorako gune bakarrek. Beren laguntza eta Music Library & SFXena funtsezkoak dira ZG/PRO garatzerakoan.

ZG/PRO bi saiotan garatu da. Saio batean Masterclasses Jardunaldiak egin dira: *Praktikak eta errepresentazioak gorputzetik*, non sektoreko hainbat profesionalak, hala nola Joana de Sousa, Lucrecia Masonek eta Cedric Succiveli masterclassak eman dituzten. Halaber, *Eстетика ez binarioa* mahai-ingurua egin da, Mariona Borrul kritikari zinematografikoak moderatua. Bertan, Caru Basakatua queer gidoigileak, Martin Segarra komikigileak eta M. Benito Píriz aka Panda artistak parte hartu dute.

Era berean, DAMAK, ikus-entzuzkoen egileen eskubideak biltzen, kudeatzen eta banatzen espezializatutako Espainiako erakundeak, eta Zinegoak 2023 ohorezko sariaren babesleak, masterclass bat eman zuen eskubideen kudeaketaren eta ekoizpen zinematografikoaren arteko harremanari buruz.

Bestalde, Zinegoak elkarteak, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren enkarguz, *Euskal Herriko ikusentzuzko garaikideetako sexu-, identitate- eta genero-identitateari buruzko lehen txostena* aurkeztu zuen.

Bigarren saioa ZG/PRO WIPi buruzkoa izan zen. Bertan, hautatutako sei proiektu aurkeztu zitzaizkion epaimahaiari, sektoreko hainbat profesionalak eta LGBTQ+ Europa Hegoaldea Jaialdien Sareko ordezkariei batek osatua. Haiek aukeratu zuten ZG/PRO saria irabazi zuen proiektua. Saria, AudioNetwork eta AltMusic ekoizpen-katalogoetarako sarbidea eskaintzen duen tarifa lau da, baita 360º Acorde musika-gainbegiratze zerbitzuetarako ere. Horrez gain, deskontuak ere jasoko ditu lan irabazleak musika komertzialen eskubideak negoziatzeko karguetan deskontuak eta 1.500 €-ko balioa duten estudio eta SFXak hornikuntza.

ZG/PRO 2023 mantiene su apuesta por la visibilización de agentes y espacios que trabajan en el desarrollo del cine relacionado con la diversidad sexual, y da un paso más para convertirse en una ventana internacional de los proyectos cinematográficos LGBTQ+ de producción estatal.

En esta edición se ha vuelto a contar con Incoproductión, el mercado digital para proyectos de cine y televisión, que aumenta su colaboración con la creación de la plataforma ZG/PRO Work in Progress (WIP). También hemos contado con la participación del Queer Cine Lab del LesGaiCineMad - Festival Internacional de Cine LGBT de Madrid, y el FIRE LAB de la Mostra FIRE!! de Barcelona, únicos espacios dedicados al asesoramiento específico para el desarrollo de proyectos LGBTQ+ estatales. Su apoyo, así como el de Music Library & SFX son claves para el desarrollo del ZG/PRO.

ZG/PRO se ha desarrollado en dos sesiones, una donde han tenido lugar las Jornadas de Masterclasses: *Prácticas y representaciones desde el cuerpo*, en la que diferentes profesionales del sector como Joana de Sousa, Lucrecia Masón y Cedric Succiveli han impartido masterclasses. También ha tenido lugar la mesa redonda *La estética no binaria* moderada por le critique cinématographique Mariona Borrul y en la que han participado le guionista queer Caru Basakatua, le dibujante de cómics Zuz Martin Segarra y le artista M. Benito Píriz aka Panda.

Asimismo, DAMA, entidad española de gestión especializada en la recaudación, gestión y reparto de derechos de autores del medio audiovisual, y patrocinadora del Premio honorífico Zinegoak 2023, impartió una master class sobre la relación de la gestión de derechos y la producción cinematográfica.

También se presentó el *Primer informe sobre la diversidad sexual, de identidad y género en el audiovisual contemporáneo vasco* realizado por la Asociación Zinegoak por encargo del Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco.

La segunda sesión estuvo dedicada al ZG/PRO WIP. En ella se presentaron los seis proyectos seleccionados al Jurado, conformado por diferentes profesionales del sector y un representante de la Red de Festivales LGBTQ+ Europa Sur. Éste eligió el proyecto ganador del Premio ZG/PRO que consiste en una tarifa plana con acceso a los catálogos de producción AudioNetwork y AltMusic, así como a los servicios de supervisión musical 360º Acorde, además de descuentos sobre cargos de negociación de derechos de músicas comerciales, y la provisión de estudios y SFX con un valor estimado de 1.500 €.



ZINEGOGOAK

Zinegoak Elkarteak garatutako programa independentea da, 2022an abian jarri zena. Horren bidez, publiko berrien sensibilizazioa eta garapenean jartzen da arreta, Bigarren Hezkuntzako, batxilergoko eta lanbide-heziketako ikastetxeei zuzenduta baitago. Urtean zehar garatzen da, LGTBQ+ ikus-entzunezkoen kulturara eta produkziara iristeko espazioak irekitzeko asmoarekin, ikus-entzunezko hizkuntzaren berezko elementuen bidez sexu-, identitate- eta genero-aniztasunarekin zerikusia duten gai guztiak hobeto ulertzen laguntzeko.

ZineGogoak ekimenaren lehen edizioa 2022ko martxoan egin zen Portugaleten, herriko Gazteria eta Kirol alorraren enkarguz, eta oso balorazio positiboa jaso ondoren, bai parte hartu zuten ikastetxeen aldetik, bai bertan parte hartu zuten ikasleen aldetik (bigarren hezkuntzako, batxilergoko eta lanbide-heziketako 5 ikastetxetako 482 ikasle), Zinegoak Elkartetik zabaldu egin da ekimen hau, eta dagoeneko EAEko hainbat herritan egiten ari dira.

Es un programa independiente desarrollado por la Asociación Zinegoak que se puso en marcha en 2022. Con él se pone el foco en la sensibilización y el desarrollo de nuevos públicos ya que está dirigido a centros educativos de educación secundaria, bachiller y formación profesional. Se desarrolla a lo largo del año con la intención de abrir espacios de acceso a la cultura y la producción audiovisual LGTBQ+, que ayuden a poder tener una mayor comprensión de todas aquellas cuestiones que tengan que ver con la diversidad sexual, de identidad y género, a través de los elementos propios del lenguaje audiovisual.


Tras llevar a cabo la primera edición de ZineGogoak en marzo de 2022 en Portugalete, por encargo del área de Juventud y Deporte de la localidad, y recibir una valoración muy positiva, tanto por parte de los centros educativos que participaron, como por parte del alumnado que tomó parte en ella (482 estudiantes de 5 centros educativos de secundaria, bachiller y formación profesional), desde Zinegoak Elkarte se ha hecho extensiva esta iniciativa que ya se está llevando a cabo por diferentes localidades de la CAV.



ZG HEDAPENA

Zinegoak elkarteak garatutako programa independentea da, eta Euskadiko eta Nafarroako hainbat herritan LGTBIQ+ ikuslegoaren garapenean, sensibilizazioan, banaketan programazioaren erakusketan jartzen du fokua. Programa hau 2005ean sortu zen, sexu-, identitate- eta genero-aniztasunari lotutako kultura-ekoizpena zabaltzeko eta zuzentzeko tresna gisa, LGTBIQ+ edukia duten lanak iristea are zailagoa den herrigunetara, bai eta LGTBIQ+ komunitatearen eta gizartearen arteko elkargune diren sensibilizazio-jardueretara edo bestelako jardueretara ere. Maitatza, ekaina eta uztaila bitartean egiten da. Aurten, 2023an, 60 proiektzio baino gehiago egin dira 50 herritan.

Es un programa independiente desarrollado por la Asociación Zinegoak que pone el foco en el desarrollo de audiencias, sensibilización, distribución y exhibición de programación LGTBIQ+ por diferentes localidades de Euskadi y Navarra. Este programa nació en 2005 como herramienta para ampliar el alcance y dirigir producción cultural en relación a la diversidad sexual, de identidad y género, a aquellos núcleos de población donde todavía es más difícil la llegada de las obras de contenido LGTBIQ+, así como las actividades de sensibilización u otras que supongan un punto de encuentro entre la comunidad LGTBIQ+ y la sociedad. Se desarrolla entre mayo, junio y julio. Este año 2023 han sido algo más de 60 proyecciones en 50 poblaciones.



Araba

1. Amurrio
2. Laudio
3. Urkabustaiz

Bizkaia

4. Abadiño
5. Bakio
6. Balmaseda
7. Barakaldo
8. Basauri
9. Berriz
10. Durango
11. Galdakao
12. Getxo
13. Igorre
14. Leioa
15. Mallabia
16. Mungia
17. Orozko
18. Sestao
19. Sopela
20. Urduña
21. Zeberio

Gipuzkoa

22. Aduna
23. Amasa- Villabona

24. Anoeta

25. Arrasate
26. Astigarraga
27. Azkoitia
28. Azepeitia
29. Beasain
30. Bergara
31. Deba
32. Donostia
33. Errenteria
34. Hernani
35. Lazkao
36. Legorreta
37. Oiartzun
38. Oñati
39. Ordizia
40. Orio
41. Tolosa
42. Zumaia

Nafarroa

43. Baztan
44. Bera
45. Leitza
46. Lizarra
47. Tafalla
48. Zizur Nagusia

www.zinegoak.com

Bilboko LGTBIQ+ 20. Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoaren Jaialdia 06-26/07-01

20º Festival Internacional de Cine y Artes escénicas LGTBIQ+ de Bilbao 26-06/01-07

20th Bilbao International LGTBIQ+ Film and Performing Arts Festival 26-06/01-07

Antolatzailea: ASOCIACIÓN ZINEGOAK ELKARTEA

Babesleak/Patrocinadores: berdindu!

Leguntzaileak/Collaboradores: eitb, Bizkaia Bilbao, FILMIN

ZINEGOAK ZENBAKIETAN EN NÚMEROS

35 proiektzio aurrez aurre
35 proyecciones presenciales

17 proiektzio online
17 proyecciones online

9 jarduera eszeniko edota kultur aurkezpen
9 actividades escénicas y/o presentaciones culturales

5 masterclass
5 masterclasses

12 fikziozko film luze
12 largometrajes de ficción

8 film luze dokumental
8 largometrajes documentales

40 film labur (Begiradak + Erroak + Zinegogoak)
40 cortometrajes (Begiradak + Erroak + Zinegogoak)

50 proiektzio ZG Hedapenean eta 60 proiektzio baino gehiago
50 localidades y más de 60 proyecciones

53% emakumeek zuzendutako lanak
53% de obras y actividades lideradas o dirigidas por mujeres

ÉXITO Y ALCANCE



ÉXITO Y ALCANCE

EVOLUCIÓN AUDIENCIAS Y VISITAS AL FESTIVAL

ASISTENCIA 2023:
15.548

ASISTENCIA PRESENCIAL:
5.150

Zinegoak + Zg Hedapena + ZineGogoak:
3.520 + 1.100 Estimación + 530

FILMIN
6.117 VISIONADOS / 10.398

MENCIONES EN INTERNET

Web:
11.500 usuarixs
30.000 sesiones

Visitas 2022:
9.500

RRSS:

TWITTER
8.960.576 interacciones

FACEBOOK
6.037 usuarixs (+130 desde 2021)

INSTAGRAM
4.115 usuarixs (+ 877 desde 2022)

OIHARTZUNA HEDABIDEETAN IMPACTO EN LOS MEDIOS

Zinegoak 2023 programak 400 agerraldi baino gehiago izan ditu hainbat komunikabidetan: telebista, irrati, egunkari, informazio-agentzia, hileroko agenda, aldizkari espezializatu, blog...

Filminen duen presentzia eta komunikazio-eremu nagusitik haratago duen irismena kontuan hartuta, komunikazioaren indartzeari eutsi dio komunikazio lerro espezializatuak garatuz.

Telebistan, nabarmentzekoa da ETBko entretenimendu eta albistegietako hainbat saiotan presentzia izana. Gainera, jaialdiaren irekiera eta itxiera ekitaldiak zuzenean jarraitzeko aukera izan zen.

Era berean, *CANAL 20 ANIVERSARIO ZINEGOAK* kanalak LGTBIQ+ gaiak jorratzen dituzten filmak eskaini ditu uztailean, Cervantes Institutuaren sareko herrialde guztietan.

Zinegoak 2023 ha tenido más de 400 apariciones en distintos medios de comunicación: televisiones, radios, periódicos, agencias de información, agendas mensuales, revistas especializadas, blogs...

Dada la presencia en Filmin y su alcance más allá del ámbito comunicativo principal ha mantenido el refuerzo de la comunicación desarrollando líneas de comunicación especializadas.

En TV destaca la presencia en diversos espacios de entretenimiento e informativos de ETB. Además de la posibilidad de seguir en directo las ceremonias de apertura y clausura del festival.

De la misma manera, el canal *CANAL 20 ANIVERSARIO ZINEGOAK* ha ofrecido todo el mes de julio películas de temática LGTBIQ+ que han formado parte del festival a lo largo de sus distintas ediciones, a todos los países de la red del Instituto Cervantes.



OIHARTZUNA HEDABIDEETAN IMPACTO EN LOS MEDIOS

Hedabide idatzi eta digitaletan 90 argitalpen baino gehiago
Más de 90 publicaciones en medios escritos y digitales:

PRENTSAN ARGITARATUTAKOAK DESTACADOS EN PRENSA

- | | |
|--------------------------|---------------|
| Berria - Bizkaiko Hitzza | Argia |
| El Correo - Diario Vasco | Ría del ocio |
| Gara - Naiz | Gaztezu |
| Deia - Ortzadar | Uriola |
| El País | Zuzeu |
| Eldiario.es | Noiz |
| Europa Press | Kultur Sharea |
| EFE | Bizkaie! |
| EITB eus | Kulturklik |
| Zinea.eus | Nontzeberri |
| Cineuropa | |

ELKARRIZKETAK ETA LANKIDETZAK ENTREVISTAS Y COLABORACIONES

30 elkarrizketa baino gehiago hedabide idatzi, digital, irri eta telebistetan.

- > Asteroko kolaborazioa Radio Euskadiko "Kultura.eus" saioan, otsail eta martxoan.
- > Hasiera Ekitaldian EITBko albistegien zuzeneko konexioa.
- > EITBko hainbat saioetan zuzeneko elkarrizketak: "Nos echamos a la calle", "Biba Zuek!", "Egun on Euskadi".
- > Bilbako egunkariaren azala erreportai eta elkarrizketekin
- > Berria egunkariaren "Bizkaiko Hitzza" gehigarrian erreportajea.
- > Telebistan elkarrizketak: RTVE (Telenorte), Hamaika Telebista (Gurean gaur), Tele 7 (albistegiak).
- > Zuzeneko elkarrizketak irratietan: Naiz Irratia, Gaztea, Euskadi Irratia, Onda Vasca, Radio Nervión, Bizkaia Irratia...
- > Elkarrizketak jaialdira etorri diren gonbidatu eta epaimahakideei hainbat hedabidetan: El Correo, Argia, EITB...

AGERPENAK TELEBISTAN DESTACADOS EN TV

- EITB - Informativos
- ETB 1- Egun on Euskadi
- ETB 1- Biba Zuek
- ETB 2 - Nos echamos a la calle
- RTVE - Telenorte Informativos
- Hamaika TB - Gurean gaur
- Tele 7 - Informativos

AGERPENAK IRRATIETAN DESTACADOS EN RADIO

- Radio Euskadi
- Radio Bilbao - Cadena SER
- Euskadi Irratia
- Gaztea Irratia
- Bizkaia Irratia
- Bilbo Hiria
- BI FM
- Onda Cero
- RNE
- Radio Nervión
- Onda Vasca
- Hala Bedi
- Naiz Irratia

Más de 30 entrevistas concedidas a medios de prensa escrita, radios y televisiones.

- > Colaboración semanal con el programa "Kultura.eus" de Radio Euskadi durante febrero y marzo.
- > Conexiones en directo de los informativos de EITB en la Gala de Inauguración.
- > Entrevistas en directo en varios programas de EITB: "Nos echamos a la calle", "Biba Zuek!", "Egun on Euskadi".
- > Portada del periódico Bilbao con reportaje y entrevista
- > Reportaje en el suplemento "Bizkaiko Hitzza" de Berria.
- > Entrevistas en TV: RTVE (Telenorte), Hamaika Telebista (Gurean gaur), Tele 7 (informativos).
- > Entrevistas en directo en radios como Naiz Irratia, Gaztea, Euskadi Irratia, Onda Vasca, Radio Nervión, Bizkaia Irratia...
- > Entrevistas a artistas y personas invitadas al festival en varios medios de comunicación: El Correo, Argia, EITB...



ASOCIACIÓN ZINEGOAK ELKARTEA



**ZINE
GO
AK**